




EUROPAKO HAZKUNDEA

Aurrekaririk gabeko beherakada Europar Batasuneko BPGan

EUROPAR BATASUNEN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa




EBKO BPG 2. HIRUHILEKOA
-%14,1



Aurreikusita zegoen bezala, aurtengo bigarren hiruhilekoak intentsitate osoz jaso du pandemiaren hedapena geldiarazteko hartu ziren erabakien eragina. Zehazki, Eurostatek argitaratutako informazioaren arabera, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Europar Batasunak %14,1 murriztu zuen bere BPGa. Eurogunean, berriz, urte arteko jaitsiera tasa %15,0 izan zen. Ez dago magnitude horietara hurbiltzen den aurrekaririk eskuragarri dauden serie historikoetan.

Zorionez, enpleguaren gaineko eragina BPGari dagokiona baino nabarmen txikiagoa izan da. Izan ere, ahaleginak egin dira plantillak enpresei lotuta mantentzeko, ekonomia nahiko azkar suspertzeko bidea emango duen aldi iragankor labur bat delako ustean. Zehatzago adierazita, enpleguaren urte arteko jaitsiera tasa %2,7ra mugatu zen bigarren hiruhilekoan Europar Batasunean, eta %2,9ra, berriz, Eurogunean.

EUROGUNEKO HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPG 2. HIRUHILEKOA
-%15,0




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ITALIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Europako herrialde garrantzitsu guztiak atzeraldian sartu dira, eta horietako bakar batek ere ez du lortu %10,0tik gorako beherakadarik saihestea, ez urte arteko tasan, ez hiruhileko arteko tasan. Badira, hala ere, alde batzuk herrialde bakoitzaren intentsitatean. Esate baterako, Alemania da, datuen larritasunaren barruan, zailtasunak hobekien eramaten ari den herrialdea, %11,3ko jaitsiera batekin. Dena dela, tasa handi hori Espainiako ekonomiak lortutakoaren erdia da, herrialde horretako urte arteko tasa -%22,1 baita. Espainiaren posiziotik oso gertu dago Erresuma Batuenak (-%21,7), nahiz eta lehen hiruhilekoan nahiko ondo eutsi zion, gainerako herrialdeetan baino jaitsiera txikiago batekin (-%1,7), euste neurriak atzerapenez hartu zirelako herrialde hartan. Frantziaren (-%18,9) eta Italiaren (-%17,7) zifrek ere pandemiak ekonomian eragin handia izan duela erakusten dute.

ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat.